

PSOE-n solidaritatea eta demagogia

Deia, 1983-07-05.

PSOE-k hemen adierazi duenez, datozen hauteskundeetarako gertatzen ari den kanpaina solidaritatean oinarritua egongo da.

Euskadiko autonomikoez ari da, noski.

"Solidaritatea" hitz polita da, esangura sakon eta ederrekoa; "askatasuna", "demokrazia", "herrikoitasuna" eta "nazioartekotasuna" bezala; baina erabilerarekin, jertse eta barrengo elastikoekin gertatzen den modura, errazegi egokierazten diogu bakoitzak berea duen soinari.

Eta kontzeptuak ez dira trapaak!

Zerorrek aukera exenploak; internazionalak, nazionalak, alderdiartekoak eta pertsonalak; orain PSOEz ari bagara ere, hemen ez dago salbuespenik.

Baina orain Euskadik Estatu honetan dituen bizilagunenganako "solidaritatea" dugu hauzitan, eta bereziki sozialista espainiarren ahotsa: atzo, oposizioan, ez zuten gauza bera esaten, baina gaur bai, agintek sortzen dituen kondizionamenduak berezko zailtasunak dituelako, eta berez Espainiako sozialismoa oso zentralista delako: erdia nazionalismo espainiarrak eraginda, eta gainontzekoa iraultzarik gabeko jakobinismo demagogikoak bultzata. Zezenak bezala dabilta: eskuinekoak zapi gorriari erasotzen dion legez, ezkerreko horiek ere badituzte fobiak, eta hoiaren artean, eskuinekoak duten bera, gure ikurrinak esan nahi duena.

Baina aipatutako solidaritateaz mintza gaitzen.

Edozeinek daki hitz honen muina elkarrekiko obligazio anaikorrean datzala. Honetan Euskadik argi eta zabal erakutsi du bere agintarien ahotik, ofizialki, solidaritate honi erantzun garbia ematen ari dela eta aurrera ere emango diola. Baina sozialista espainiarretan auzia ez da legeko harreman ekonomiko honetan geratzen, konstituzioan ezagutu ziguten Autonomiaren eta demokrazia beraren izpirituan zapaldu nahi digute. Estatu honetako partaideak, 17 Autonomia, denak berdinak izatea nahi dute. Nola berdinduko gaituzte herrikoitasunean berdinak ez garenak. Geu nazionalitate bat gara (eta ez bakarra), konstituzioak berak aitortzen duenez gero; geuk hizkuntz-arazo larriak ditugu, beste gehienak ez; geuk geurea den historia dugu, gure arazo nazionala ez da inbentoa, egoera larria baizik, eta ONUko Gizonaren Eskubideak babestua dagoena. Zer jokotan sartu da PSOE? Franquismo garaiko argudioen kinkaileria guztia atera behar ote dugu berriz? Ez al da, orduan, hemen Nazionalitateen ezagutza aldetik ezer aldatu?

Gu herri bat gerala aldarrikatzen hasi behar berriz!

Aginkeria honen bidetik ez dira hemen gauzak konponduko!